

TXOSTENA

AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA.

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- 13/2014 Foru Araua, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa.
- 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15koa, Gipuzkoako toki-erakundeen kontabilitatearen arau-esparrua onartzen duena

AZTERTUTAKO TRAMITEA:

2020. JARDUNALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA.

1.- 1/2013 FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUARN ERAKUNDEAK (administrazio-izaerakoak):

1.1.- ERAKUNDEEN ZERRENDA:

Udala
Eibarko Kirol Instalazioen Udal Patronatua.
"San Andres Egoitza" Fundazioa
Debegesa¹

¹ DEBEGESA txosten hau osatzen duten erakundeen zerrendan sartzen da, Estatuko Administrazioako Kontu-hartzailetza Nagusiak sozietatea Eibarko Udalari atxiki ondoren, administrazio publiko gisa aitortua izan delarik.

1.2.- HELBURUAK BETETZEN DIREN EGIAZTATZEA.

Zuzenbideko oinarriak

Txosten hori modu independentean egingo da, eta Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 arauan aurreikusitakoei erantsiko zaie, aurrekontu orokorra onartzeari, haren aldaketei eta likidazioari dagokienez, eta finantzatzeko gaitasuna edo beharra zehazteko, gastuaren araua betetzen den ala ez zehazteko eta finantza-iraunkortasuna eta ez-betetzearen ondorioak egiaztatze beharrezkoak diren kalkulu zehatzak jaso beharko ditu.

2020ko apirilaren 16an plan ekonomiko-finantzario bat egin zen aurrekontu-egonkortasunaren helburua ez betetzeagatik eta gastu-araua ez betetzeagatik. Planak 2020-2021 aldia hartzen du.

Aipatu behar da 2020ko azaroaren 12an argitaratu zela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretu Araua, 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako egungo zerga-arauak etenda daudela deklaritzen duena.

Ezohiko finantza-neurri horiek aplikatuz, eraginik gabe uzten da gastu-araua betetzea. Gainera, udalen defizit individualaren helburua zehazteko, defizit globala banatuko da, Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren kuoten proportzio berean. Epe luzeko zorpetzeari dagokionez, zorpetzeak ekitaldi bakoitzerako onartutako defizit-helburuarekin koherentea izan behar duela adierazten da. Era berean, onartutako plan ekonomiko-finantzarioak gairatutak joko dira.

9/2020 Foru Dekretu Arauak ezartzen duenaren arabera, eteteak ez du eraginik izango zerga-arauekin zuzenean lotuta ez dauden betebeharrak betetzeko, eta jarraipen- eta gainbegiratze-neurriei eutsi beharko zaie. Horrek esan nahi du egiaztapenak eta egonkortasun-txostenak egiten jarraitu behar direla, baita informazioa Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzen ere.

Foru Dekretu Arauak ezartzen dituen neurriak ohiz kanpokoak direla kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzen jarraitzea, ahal den neurrian, etorkizuneko ekitaldietan erakundeen finantza-iraunkortasuna arriskuan ez jartzeko.

Aurrekontu-egonkortasuna.

Ondorengo lauki honetan, 2020. ekitaldi amaieran, Udalaren, bere Erakunde Autonomoen eta Debegesaren aurrekontuetako diru-sarreretan eta gastuetan dauden egoera bateratuak jasotzen dira.

DIRU-SARRERAK.

GASTUAK:

KAP.	Izena:	ZENBATEKOA	KAP.	Izena:	ZENBATEKOA
1	Zuzeneko zergak.	8.415.957,21	1	Pertsonala Langileri	14.409.263,64
2	Zeharkako zergak.	1.007.788,94	2	Ondasunak eta zer	11.478.358,50
3	Tasak eta prezioak	2.914.118,42	3	Interesak	13.999,49
4	Trans. arruntak.	22.604.486,31	4	Trans. arruntak.	5.741.488,16
5	Ondare sarrerak.	198.359,40	5	Kreditu globala	0,00
6	Inb. Besterenganatz.	1.047.454,03	6	Inbertsio errealak	8.732.840,77
7	Kapital transferentz	703.706,82	7	Kapital transferentzi	254.886,54
Diru-sarrerak, guztira (1-7 Kap.)		36.891.871,13	Gastuak, guztira (1-7 Kap.)		40.630.837,10
Defizita.		3.738.965,97	Superabita		
8	Finantza-aktiboak	25.346,37	8	Finantza-aktiboak	16.227,33
9	Finantza-pasiboak.	0,00	9	Finantza-pasiboak.	504.395,36
Finantza-sarrerak, guztira		25.346,37	Finantza gastuak, guztira		520.622,69
Diru-sarrerak, guztira.		36.917.217,49	Gastuak, guztira		41.151.459,79

2020ko aurrekontu likidazioaren espedienteak **3.738.965,97 euroko defizita du**, Europako kontuen Sistemaren (SEC) arabera. Ondorio horietarako, gerora doiketa egitea eskatuko lukeen eragiketa esanguratsurik ez denez aurreikusten, kalkulu hori -aurreko laukian ikusten den bezala-sarreretak 1etik 7ra bitarteko kapituluaren eta gastuetako 1etik 7ra bitartekoen artean dagoen aldea edo diferentzia bezala islatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

Azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretu Arauak, 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako egungo arau fiskalak etenda daudela deklaritzen duenak, udalen defizit indibidualaren helburua zehazten du, defizit globala Udal Finantzaketarako Foru Funttsaren kuoten proportzio berean banatuz. Hain zuzen ere, Eibarko Udalaren erreferentziazko defizitaren helburua, diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako obligazioak kendu ondoren, 2.946.165 eurokoa da.

Beraz, altxortegiko gerakinarekin finantzatutako obligazioen zenbatekoa aurrekontu-defizita baino handiagoa dela ikusita, **2020ko aurrekontuaren likidazio-espedienteak aurrekontu-egonkortasunaren erreferentziazko helburua betetzen du.**

Finantzen iraunkortasuna.

2020.12.31an zor biziaren kalkulua ateratzeko datuak.

Banco Santander	399.000,00
Banco Guipuzcoano Sabadell	316.185,96
KUTXA	399.000,00
Caja Laboral	1.550.000,00
GUZTIRA, 2020ko abenduak 31	<u>2.664.185,96</u>

2020an likidatutako diru-sarrera arruntak. 35.140.710,28
KONTSOLIDATUAK

$$\text{Zorraren portzentajea:} = \frac{2.664.185,96}{35.140.710,28} \times 100 = \mathbf{\%7,58}$$

2020ko abenduaren 31n, goian aipatutako erakundeen zor bizia 2020an likidatutako diru-sarrera arruntan % 7,83 da. Kalkulu hori egiteko, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeuden eragiketa guztiei dagokien zor biziaren zenbatekotik abiatu da, abalen ondoriozko arriskua barne; lortutako emaitzari eragiketa formalizatuak eta erabili gabeak gehitu zaizkio.

Azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretu Arauak, 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako egungo arau fiskalak etentzat jotzen dituenak, ezartzen du epe luzeko zorrak koherentea izan behar duela ekitaldi bakoitzerako onartutako defizit-helburuarekin.

Beraz, 2020ko aurrekontuaren likidazio-espeditentean proiektatutakoaren arabera, finantza-jasangarritasunaren helburua bete dela ulertzen da.

Gastu araua:

2019. eta 2020. ekitaldien arteko gastu konputagarriaren aldaketa %4,71koa da.

Aurreko kalkulu hori ateratzeko goian esandako entitate horien datu bateratuak izan dira kontuan hartu direnak. Zehaztasunak jarraian:

GASTU KONPUTAGARRIAREN ALDAKETA.		
a1	Finantzakoa ez den gastua, 2019 (1etik 7ra bitart kapit).	37.095.852,45
a2	KSE doiketak.	
a3	Interesak, 2019.	16.483,33
a4	Finantzaketa lotua duen gastua, 2019.	2.306.091,23
a5	Arau-aldaketen ondorioa.	15.000,00
a=a1+a2-a3-a4-a5	Gastu konputagarria, 2019	34.758.277,99
b1	Gastu ez finantzarioa, 2020 (1etik 7ra bitarteko kapituluak).	40.630.837,10
b2	KSE doiketak.	
b3	Interesak, 2020	13.999,49
b4	Finantzaketa lotua duen gastua, 2020	4.221.561,65 ²
b=b1+b2-b3-b4	Gastu konputagarria, 2020	36.395.275,96
c=(b/a-1)*100.	Gastu konputagarriaren bariazioa (%tan).	4,71

2020ko azaroaren 12an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretu Araua, 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako egungo zerga-arauak etenda daudela deklaratzeko duena. Ezohiko finantza-neurri horiek aplikatuz, eraginik gabe uzten da gastu-araua betetzea.

2020. urtea, ezhoizko ekitaldia izan da ezbairik gabe, Debegesa helburuen betearazpenean barneratu izana eta udalak hasieran aurreikusita ez zeuden ahaleginak egin behar izan dituen arren, komeni da ohartaraztea gastuaren hazkundera nabarmena izan dela. Gogoratu behar da 2018. urtea baimendutako gastu-hazkundera baino askoz handiagoa izan zela (% 9 ingurukoa), eta 2019an gastuaren araua ez betetzat, gastu konputagarriaren aldakuntzak gora egiten jarraitzen zuelako. Beraz, Eibarko 2020-2021erako Ekonomia eta Finantza Planean adierazten den bezala, adierazle horri arreta berezia jarri behar zaio etorkizuneko ekitaldietan, eta neurriak hartu behar dira gastua maila onargarrietara egokitzeko, etorkizuneko ekitaldietan finantza-iraunkortasuna arriskuan ez jartzeko.

² El gasto con financiación afectada, hace referencia a los *Gastos financiados con fondos finalistas de la UE u otras Administraciones Públicas*. Para su cálculo, se estima por aproximación, entendiendo que todos los ingresos que hay por transferencias corrientes o de capital (a excepción del FFFM) van a financiar estos gastos afectados. Por economía de tiempo, se obvia que pudiera existir algún caso aislado en el que un ingreso fuera destinado a la generalidad, pues no sería representativo.

1.3 ONDORIOAK

Helburuen egiaztapenean azaldu den bezala, txosten hau aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta gastu-arauaren helburuen jarraipena eta ikuskapena egiteko neurri gisa egin da.

2020ko azaroaren 12an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen azaroaren 10eko 9/2020 Foru Dekretu Araua, 2020ko eta 2021eko ekitaldietarako egungo zerga-arauak etenda daudela deklaritzen duena. Hala ere, Dekretuak erreferentziazko tasatzat hartzen diren defizit- eta zor-helburuak ezartzen ditu.

Hori esanda, **2020ko aurrekontuaren likidazio-espeditenteak finantza-iraunkortasunaren helburua eta aurrekontu-egonkortasunaren erreferentziazko helburua betetzen du.**

Gastu-arauari dagokionez, 2020rako erreferentziazko helbururik ezarri ez bada ere, arreta berezia jarri behar da etorkizuneko ekitaldietan magnitude horrek izan duen bilakaeran. Gastu konputagarriaren aldakuntza nabarmen handitu da 2020an, eta aurreko ekitaldietako likidazio-txostenetan islatzen denaren ildotik, esku hartzen duen sailak gomendatzen du neurriak hartzea gastua maila onargarrietara egokitzeko, etorkizuneko ekitaldietan finantza-iraunkortasuna arriskuan ez jartzeko.

Azkenik, 9/2020 Foru Dekretu Arauaren 1.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, **Eibarko 2020-2021erako Ekonomia eta Finantza Plana gainditutzat jotzen da.**

Eibarren, 2021eko martxoaren 30ean

Xabier Andres Cambronero
Eibarko udaleko funtsen Kontu-hartzailea